

## **EZ OHIKO UDALBATZARRA**

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2011ko urriaren hogeita seiko eguerdiko ordubiak direnean, bildu dira, ez ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Alkate Lehendakaria

Nerea Agirretxe Aranburu, Zinegotzia.

Leire Beristain Mendizaba, Zinegotzia.

Arkaitz Arruti Eizagirre, Zinegotzia ez da etorri.

Jokin Uzkudun Goenaga, Zinegotzia ez da etorri.

Luis Berrondo Lanceta, Zinegotzia ez da etorri.

Iñaki Irulegi Apalantza, Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **2011KO AZAROAREN 20AN OSPATUKO DIREN ESPAINIAR HAUTESKUNDEETAKO MAHAI KIDEEN AUKERAKETA.**

Hauteskunde Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26.artikuloan agindutakoarekin bat etorritz, hauteskunde ondorengo hogeita bostgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean, Udalak Hauteskunde Mahaiak osatzera jo behar dute, Eskualdeko Hauteskunde Junten gainbegirapean.

Hauteskunde Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Legearen 26.2 artikuloan, Lehendakaria eta bokalak dagokion Sekzioan erroldatutako persona guztien artean zozketaz izendatuak izan behar dutela ezartzen da, hirurogeita bost urte baino gazteagoak eta irakurtzen eta idazten dakitenak eta lehendakariak batxilergo edo bigarren mailako lanbide heziketa titulua izan beharko du, edo subsidiarioki, graduatu eskolarra edo baliokideren bat.

Honela bada, urriaren 26an Alkateak Plenoa deitu zuen, aurrez aipaturiko zozketa egiteko. Hala bada, zozketa burutu ondoren eta bere emaitzarekin bat etorritz, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

**LEHENA:** Jarraian aipatzen diren hauteskunde mahaietako lehendakariak eta bokalak izendatzea:

## MAHAI BAKARRA

- |                         |                                    |
|-------------------------|------------------------------------|
| <b>1.- Presidentea-</b> | Nerea AGIRRETXE ARANBURU           |
| 1. Ordezkoa-            | Inazio M. ARANGUREN AGIRREZABALAGA |
| 2. Ordezkoa-            | Miguel Angel VERDI ROMAN           |
| <b>2.- 1.Kidea-</b>     | Izaro ZINKUNEGI BARANDIARAN        |
| 1. Ordezkoa-            | Maria Pilar SANDONIS GONZALEZ      |
| 2. Ordezkoa-            | Ignazio Maria AGIRRETXE ARRUTI     |
| <b>3.- 2.Kidea-</b>     | Eneritz OTEGUI ARBELAIZ            |
| 1. Ordezkoa-            | Aloña ARRILLAGA BELDARRAIN         |
| 2. Ordezkoa-            | Jokin UZKUDUN GOENAGA              |

BIGARRENA: Aipaturiko erabakiaren berri Azpeitiako Hauteskunde Juntari jakineraztea, hauteskunde araudian aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Beste gairik ez dagoenez, eguerdiko hamabiak eta hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.